

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Kalicola proiektuak aurrera egin dezan, ezinbestekoa da hainbat hornitzaile eta bazkiderekin elkarlan sendoak izatea. Alde batetik, ardo beltzaren eta kola-edariaren hornitzaile fidagarriak behar dira, produktuaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzeko. Bestetik, lata-fabrikatzaileak eta edariak nahastu, ontziratatu eta etiketatzeko ardura duen ekoizpen-enpresa espezializatua (maquila) funtsezko bazkideak izango dira. Halaber, banaketa-enprekin, ostalaritza-sektoreko establezimenduekin eta jaialdi edo ekitaldien antolatzaileekin egindako akordioek produktuaren merkaturatzea erraztuko dute. Azkenik, diseinu grafikoan, marketinean eta aholkularitza legal eta sanitarioan aritzen diren profesionalekin elkarlanak negozioaren sendotasuna eta lege-betetasuna ziurtatuko ditu